**UDALBATZAK 2018KO EKAINAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren 26ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 26 DE JUNIO DE 2018**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de junio del año dos mil dieciocho, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Jesús SANCHEZ HERNANDEZ Udaleko diruzaina.

----------

**1. Udalbatzak 2017ko abenduaren 19an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea.**

Idazkariak irakurri du 2018ko abenduaren 19an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta.

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 1415 zk.tik 1698 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Kontuhartzailetzako txostenak.**

Ondokoak jakinarazi dira:

- Aurrekontuaren aldaketak. Kreditu gehigarriak 2018KALD00005-00
- Aurrekontu egonkortasuna eta finantza

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste el Tesorero Municipal Jesús SÁNCHEZ HERNANDEZ.

----------

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 19 de diciembre de 2017.**

Leída por la Secretaria el acta correspondiente a la sesión ordinaria del 19 de diciembre de 2018.

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Dar cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 1415 al 1698 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Informes de Intervención.**

Se da cuenta de los siguientes:

- Modificación presupuestaria. Créditos adicionales: 2018KALD00005-00
- Informe sobre el cumplimiento de los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko txostena: Kreditu gehigarriak 2018KALD00005-00

objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera: Créditos adicionales 2018KALD00005-00

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**4. Proposamena: 2018. urterako Ordenantza Fiskalen 3. aldaketa, Hasierako onespena.**

**4. Propuesta: 3ª modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018. Aprobación inicial.**

Udal Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamen ezberdinak jaso dira. Zehazki hurrengo Ordenantzak aldatu nahi dira eranskinean jasotzen den edukiarekin:

Se han recibido distintas propuestas para modificar las Ordenanzas fiscales municipales. Concretamente se propone modificar las Ordenanzas que se detallan a continuación, con el contenido recogido en el anexo de esta propuesta:

**4.2.- Prezio publikoa: Udal lokalak erabiltzea.**

**4.2.- Precio público: Utilización locales municipales.**

**4.3.- Prezio publikoa: Haur eskoletako jangela zerbitzua.**

**4.3.- Precio público: Servicio de comedor en escuelas infantiles**

**4.6.- Prezio publikoa: Udal tailer ezberdinak eskaintzen dituzten zerbitzuen erabilpena.**

**4.6.- Precio público: Utilización de los servicios ofrecidos por los diversos talleres municipales.**

Txosten teknikoak eta 2018ko ekainaren 13ko Udal Kontuhartzailearen, Zubiri jaunaren txostena ikusirik.

Vistos los informes técnicos y el informe del Interventor municipal, Sr. Zubiri, de fecha 13 de junio de 2018.

2018ko ekainaren 20an, Ogasuna eta Garapen ekonomikoko delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Visto que en fecha 20 de junio de 2018, a propuesta del Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 10 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**E R A B A K I   D U**

**1.** Aurkeztutako Ordenantza fiskalen hurrengo aldaketen proposamenari, hasierako **onespena** ematea, eranskinetan proposatzen den edukiarekin (espedientean jasota daude).

**4.2.- Prezio publikoa: Udal lokalak erabiltzea.**

**4.3.- Prezio publikoa: Haur eskoletako jangela zerbitzua.**

**4.6.- Prezio publikoa: Udal tailer ezberdinak eskaintzen dituzten zerbitzuen erabilpena.**

**2. Akordioa jendaurrean jartzea** 30 lanegunez. Epe horretan erreklamazio zein iradokizunak egin ahal izango direlarik. Egoki den iragarkia Udalaren Iragarki Oholean, udal web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batean argitaratuko da.

**3.-** Ordenantzen aldaketa eta eranskinen inguruko erabakiak behin betikoak izango dira, eta beraz ez dute erabaki berririk beharko, baldin eta jendaurreko informazio-epea amaitu ondoren ez bada erreklamaziorik jaso, eta indarrean sartuko dira ordenantza aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

**5. Errenteriako Udala "Pirinioetako Burdinaren Bidea" elkarteari atxikitzeko akordiorako proposamena.**

**A C U E R D A**

**1.- Aprobar** inicialmente la propuesta de modificación de las Ordenanzas fiscales que se detalla a continuación, con el contenido propuesto en los anexos que constan en el expediente.

**4.2.- Precio público: Utilización locales municipales.**

**4.3.- Precio público: Servicio de comedor en escuelas infantiles**

**4.6.- Precio público: Utilización de los servicios ofrecidos por los diversos talleres municipales.**

**2.- Someter el acuerdo a información publica** por el plazo de 30 días hábiles, a efecto de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse. Se publicará el correspondiente anuncio en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, web municipal, Boletín Oficial de Gipuzkoa, y al menos un diario de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**3.-** Los acuerdos adoptados sobre modificaciones de las Ordenanzas fiscales y sus anexos devendrán definitivos, sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna, y entrarán en vigor tras la publicación de su texto integro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5. Propuesta de acuerdo para incorporación del Ayuntamiento de Errenteria a la asociación "Ruta del Hierro en los Pirineos".**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Pirinioetan siderurgiarako tradizioa aspalditik dator, burdina-mineral ugariko eskualdea da; burdina lurrazalean laugarren elementurik ugariena da. Jarduera hori aberastasun ekonomikoko iturri da eta testigantza ugari transmititu ditu. Horrela, baso- eta meatze-ustiapenek eta transformazio-eraikinek arrasto sakona utzi dute mendikate honen paisaian.

Los Pirineos poseen una larga tradición siderúrgica, constituyendo una región rica en mineral de hierro, el cuarto elemento más abundante en la corteza terrestre. Esta actividad, fuente de riqueza económica, ha transmitido muchos testimonios. Así, las explotaciones forestales, mineras y los edificios de transformación han dejado una huella profunda en el paisaje de este macizo montañoso.

“Pirinioetako Burdinaren bidea” nazioarteko elkarteak bere baitan biltzen ditu Pirinioetako hiru estatutako interpretazio-guneen eta kultura-zentroen sare bat, burdinaren ondareari lotutakoa, kontserbazio, ikerketa eta zabalkundeko jarduna koordinatzeko, ondare-elementu nagusiei buruzko erreferentziako inbentario komuna eratu eta guztion eskura jarriko duten dibulgazio zientifiko eta teknikoko produktuak egiteko.

La asociación internacional denominada “Ruta del Hierro en los Pirineos” agrupa a una red de espacios interpretativos y centros culturales de tres estados pirenaicos ligados al patrimonio del hierro, para coordinar su actividad de conservación, investigación y difusión con el objetivo de crear un inventario común de referencia sobre los principales elementos patrimoniales y elaborar productos de divulgación científica y técnica que lo hagan accesible al gran público.

Elkartearen helburuak hauek dira:

Los objetivos fundacionales de la Asociación son los siguientes:

1.- sustatzea burdinan eta bere industrietan oinarritutako kultura-ondarea duten Europako eskualde eta lurraldeen arteko ibilbide kulturala.

1.- promover un itinerario cultural entre las diferentes regiones y territorios europeos con un patrimonio cultural basado en el hierro y sus industrias.

2.- laguntzea siderurgiaren eta meatzaritzaren historiaren ezagutza zientifikoa, bai eta lurraldeen garapenean izan duen papera ere; hori guztia ezagutzera ematea publiko zabalari zuzendutako kultura-produktuak sortuta.

2.- contribuir al conocimiento científico de la historia de la siderurgia y de la minería, y de sus papel en el desarrollo de los territorios y su difusión a través de la creación de productos culturales dirigidos al gran público.

3.- tokiko historia ezagut dadin sustatzea.

3.- impulsar el conocimiento de la historia local.

4.- bultzatzea horren kudeaketa turistikoa, bai eta kohesio soziala ere.

4.- impulsar la gestión turística del mismo, así como la cohesión social.

5.- sustatzea kultura-turismoko politikak, batera nahiz

5.- fomentar políticas de turismo cultural,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bakarka.

conjuntamente, así como individualmente.

Gaur egun elkarte horretako kide dira hauek: Andorrako Gobernua (Departament de Patrimoni), Communaute du Pays de Nay (Akitania Berria, Frantzia), Kataluniako Zientzia eta Teknika Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Lenbur Fundazioa eta Beasain, Ormaiztegi, Mutiloa eta Zeraingo Udalak.

Actualmente se hallan incorporados a dicha Asociación los siguientes miembros: Gobierno de Andorra (Departament de Patrimoni), Communaute du Pays de Nay (Nueva Aquitania, Francia), Museo de la Ciencia y de la Técnica de Cataluña, Diputación Foral de Gipuzkoa, Fundación Lenbur, y Ayuntamientos de Beasain, Ormaiztegi, Mutiloa, y Zerain.

Fanderiako errota industria-eraikina da, XV. mendeaz geroztik burdina-meatzeei lotua dagoena eta udal-azpiegitura publiko bat hartzen duena bere baitan, gaur egun helburu bikoitzarekin, udalerriko ibaiei eta historiari lotutako **kultura- eta ingurumen-ondarea** balioan jartzeko asmoz: (1) ibaiaren interpretazio zentroa, eta (2) ostalaritza berritzailea, jarduera sozio-kulturalekin.

El Molino de Fanderia es un edificio industrial ligado a la minería del hierro desde el siglo XV, y que acoge una infraestructura pública municipal cuyo destino tiene en la actualidad una doble vocación, en un marco de puesta en valor del **patrimonio cultural y ambiental** asociado a los sistemas fluviales del municipio y a su historia: (1) centro de interpretación fluvial, y (2) hostelería innovadora con actividades socio-culturales.

1450ean ezagutzen zen jarduera siderurgikoa zegoela Gipuzkoako burdinola nagusienetakoan: Renteriola. 1625era arte egon zen gutxienez martxan. Renteriola burdinolan burdina totxotan banatzen zen eta, horiek instalazio txikiago edo gabietan manipulatzen zen. Ondoren, mendeetan zehar, burdinola pixkanaka bihurtu zen fanderia, errota, irin- eta pentsu-fabrika, eta industria-jarduera behin betirako eten zuen 1996. urtean.

En 1450 ya se conocía la existencia de una actividad siderúrgica en lo que era una de las ferrerías mayores de Gipuzkoa: Renteriola. Estuvo operativa al menos hasta 1625. En la ferrería de Renteriola se reducía el hierro en tochos que posteriormente se manipulaban en instalaciones menores o martinetes. Posteriormente, a través de los siglos la ferrería se transformó sucesivamente en fandería, molino, fábrica de harinas y de piensos, cesando toda actividad industrial en 1996.

Orain, Fanderiako Errotako ibaiaren interpretazio zentroa martxan jartzearen helburua da Oiartzun Ibaiaren Paisaiaren Ekintza Planean txertatutako lehentasunezko ekintza bat. Ekintza-plan hori Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen 2015eko abenduaren 2an eta Errenteria 2025 Plan Estrategikoan txertatu zen.

Ahora, la puesta en marcha del Centro de Interpretación Fluvial del Molino de Fanderia tiene como base una acción prioritaria incorporada al Plan de Acción del Paisaje del Río Oiartzun (Errenteria), impulsado por el Gobierno Vasco, aprobado por la Junta de Gobierno Local el 2 de diciembre de 2015, e interiorizada por el propio Plan Estratégico Errenteria



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2025.

Fanderiako Errotaren bokazioa da Errenteriako aktibo turistiko izatea. Horregatik, ulertu behar da “Pirinioetako Burdinaren Bidea” Elkarteari atxikitzeak, **Europako kultura ibilbidea** izenarekin, Udalarentzat interes handia duela, Errenteriako ondarea sustatu eta komunikatzeko ekintzetan sortzen diren sinergiak direla-eta, antzeko ekipamendu publikoekin batzen direlako.

El Molino de Fanderia tiene vocación de convertirse es uno de los activos turísticos del municipio de Errenteria. Por ello, hay que entender que la pertenencia a la Asociación “Ruta del Hierro en los Pirineos”, con nominación de **itinerario cultural europeo**, posee un elevado interés municipal, dadas las sinergias que se generarán en las acciones de promoción y de comunicación sobre el patrimonio cultural de Errenteria, al confluir con equipamientos públicos similares.

“Pirinioetako Burdinaren Bidea” Elkartearen Estatutuen arabera, elkarteko kide izateak betebehar ekonomiko hauek betetzea ekarriko du:

En conformidad con los Estatutos de la Asociación “Ruta del Hierro en los Pirineos”, entre las obligaciones económicas que implica ser miembro de la misma están las siguientes:

Erakunde bakoitzak bere gain hartuko ditu bere azpiegiturak egitearen ondoriozko gastuak: seinaletika, erakundearen web-orria, baterako erakusketa ibiltariak garraiatzea, etab. Halaber, kideek, kuota baten bidez, funtsak gordeko dituzte baterako zabalkunderako, jardueren trukerako eta bileretarako joan-etorrietarako. Elkartean parte hartzeko aurrekontua izango da 400 eurokoa urtean, parte hartzeko kuota gisa; urtero igoko da parte hartzen duten herrietako KPIaren batezbestekoarekin.

Cada institución se hará cargo directo de los gastos derivados de la realización de las propias infraestructuras como son señalética, módulo de la página web correspondiente a la institución, transporte de exposiciones itinerantes conjuntas, etc,... Así mismo, los miembros harán una reserva necesaria de fondos para la difusión conjunta, el intercambio de actividades y los gastos derivados de los desplazamientos para las reuniones mediante una cuota. La participación en la Asociación tendrá un presupuesto de 400 euros anuales en concepto de cuota de participación, con un incremento anual de la media del IPC de los países participantes.

Kultur Ondare teknikariak, 2018ko maiatzaren 15ean Errenteriako Udala “Pirinioetako Burdinaren Bidea” elkarteari atxikitzeko akoridioa onartzearen aldeko txostena egin du.

La técnica de Patrimonio Cultural con fecha 15 de mayo de 2018 ha emitido informe favorable al acuerdo para la incorporación del Ayuntamiento de Errenteria a la asociación “Ruta del Hierro en los Pirineos”

2018-06-07an Udal Aholkulari juridikoak

El asesor jurídico muncipal ha realizado informe de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

txostena bete du eta idazkari nagusiak adostasuna eman du.

fecha 07-06-2018 y la Secretaria General ha dado nota de conformidad.

Kontuhartzailearen 2018-06-13ko txostena badago.

Hay informe de intervención de fecha 13-06-2018.

2018ko ekainaren 18an, Kulturako Azpisaileko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Herritarrak batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Visto que en fecha 18 de junio de 2018, a propuesta del Concejal Delegado de la Subárea de Cultura, la Comisión de Ciudadanía dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV), hau

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Errenteriako Udala atxikitzea “Pirinioetako Burdinaren Bidea” Elkarteari, erakunde horren indarreko estatutuen arabera.

La integración del Ayuntamiento de Errenteria en la Asociación “Ruta del Hierro en los Pirineos”, en conformidad con los Estatutos vigentes de dicha entidad.

**6. “LGTBI+ pertsonen sexu-askapenerako nazioarteko egunari” buruzko mozioa, Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ eta EAJ/PNV taldeek aurkeztua.**

**6. Moción relativa a “Día internacional por la liberación sexual de las personas LGTBI+” suscrita por los Grupos Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV.**

Mozio hau irakurri da:

Leída la siguiente moción:

**“LGTBI+ PERTSONEN SEXU-ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**Ekainak 28**

**“DÍA INTERNACIONAL POR LA LIBERACIÓN SEXUAL DE LAS PERSONAS LGTBI+**

**28 de junio**

49 urte igaro dira Stonewalleko erreboltaz geroztik. 1969ko ekainaren 27tik 28rako gauean New Yorkeko polizia Stonewall izeneko pub batean sartu zen

Han pasado 49 años desde la rebelión de Stonewall. La noche del 27 al 28 de junio de 1969 la policía de Nueva York entró en un pub llamado Stonewall para



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

transexual, lesbiana, gay eta bisexualak atxilotzeko. Euren eskubideak defendatzeko elkartzen ziren lehen aldia ez bazen ere, data hori mugarri bihurtu zen diskriminazio- eta ikusezintasun-testuinguru batean: LGTBI+ pertsonek euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzeko antolatu zuten borrokan katalizatzaile bat izan zen.

Orduz geroztik ekainaren 28an LGTBI+ pertsonen Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna ospatzen da: dibertsitatea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Gaur egun oraindik ere LGTBI+ pertsonek mota guztietako diskriminazioak jasaten dituzte, askotan indarkeria barne: sexu-orientazioagatiko eta/edo genero-identitateagatiko gorroto-delituak, heterosexualitatea arau gisa inposatzen dela agerian uzten duten hainbat diskriminazio eta eraso, trans kolektiboaren patologizazioa, trans diren haur eta nerabeentzako arreta egokirik eza, eta abar. Ez dugu ahaztu behar bidegabeko errealitate diskriminatzaile hori askoz handiagoa dela pertsona askorentzat euren arraza, jatorria, egoera administratiboa eta/edo sozio-ekonomikoa eta abar direla medio. Oraindik ere hori gertatzen ari da gure gizartean, eta gure betebeharra da LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeko lan egitea. Araudiari eta ekintza espezifikoak martxan jartzeari dagokienez aurrerapausoak eman diren arren, oraindik lan asko egin behar da LGTBI+ pertsonek euren eskubide guztiez egun guztietan goza dezaten defendatzeko eta sexualitatea eta generoa bizitzeko modu eta adierazpen guztien normalizaziorantz beharrezko gizarte-aldaketa gauzatzeko.

Egun honetan ezin dugu ahaztu Euskal Herrian

detener a transexuales, lesbianas, gays y bisexuales. Aunque no era la primera vez que se unían para defender sus derechos, esta fecha marcó un antes y un después en un contexto de discriminación e invisibilización: fue un catalizador en la lucha organizada de las personas LGTBI+ para vivir de forma libre su sexualidad y su género.

Desde entonces el 28 de junio se celebra el Día Internacional por la Liberación Sexual de las personas LGTBI+: un día para la celebración de la diversidad y los logros conseguidos y, al mismo tiempo, de reivindicación de todo lo que falta por avanzar en términos de derechos.

Hoy día las personas LGTBI+ viven todavía todo tipo de discriminaciones, muchas veces violentas: delitos de odio por orientación sexual y/o identidad de género, diversas discriminaciones y agresiones que ponen en evidencia la imposición de la heterosexualidad como norma, la patologización del colectivo trans, la falta de una atención adecuada a niñas, niños y adolescentes trans, etc. No debemos olvidar que esta injusta realidad discriminatoria se ve multiplicada para muchas personas por razón de su raza, su origen, su situación administrativa y/o socioeconómica...Esto sigue pasando en nuestra sociedad y es nuestro deber trabajar para eliminar toda forma de discriminación contra las personas LGTBI+. Aunque se ha avanzado normativamente y en la puesta en marcha de acciones específicas, todavía queda mucho por hacer tanto para defender que las personas LGTBI+ disfruten de todos sus derechos todos los días como para el necesario cambio social hacia la normalización de todas las formas y expresiones de vivir tanto la sexualidad como el género.

En este día no debemos olvidarnos de reconocer la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

mugimendu LGTBI+ eta feminista osatzen duten pertsona guztien borrokaren aldarrikapena, izan ere, eguneroko zereginean, eta diskriminazio mota oro ezabatzeko lan eginez, gizarte benetan bidezkoa, igualitarioa eta feminista eraikitzeko funtsezko ekarpena egiten baitute. Euren borrokari laguntzeko gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du, ez soilik adierazpenak eginez, baizik eta gizarte-ordezkariekin adostutako ekintzak martxan jartzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometituz, betiere ikuspegi feminista eta eraikitzailearekin.

Funtsezko giza eskubideez, norberaren identitatea definitzeko eta identitate hori askatasunez bizitzeko eskubideaz ari gara.

Horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du bere politiketan sexu-aniztasuneko eta genero-identitateko ikuspegia sartzeko, eta zehazki:

- Diskriminazioaren prebentziorako eta identitate eta praktika sexu-afektibo ez heteroarautzaileak, askotarikoak eta askatasunean egindakoak garatzeko ekintzak barnean hartzen dituzten baterako hezkuntza feministako programak sustatzea.

- Diskriminazioa jasaten duten LGTBI+ pertsona guztiei, eta bereziki beren sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo eta abarrengatik kalteberatasun handiagoko egoeran dauden pertsonei sozialki, psikologikoki, juridikoki eta ekonomikoki laguntzeko beharrezko baliabide guztiak ematea.

- EAEn LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsa osoa eta araudiaren garapen egokirako beharrezko baliabide guztiak bermatuko dituen araudi

lucha de tantas personas que conforman el movimiento LGTBI+ y feminista en Euskal Herria que en su día a día, y trabajando por eliminar toda forma de discriminación, hacen un aporte fundamental a la construcción de una sociedad realmente justa, igualitaria y feminista. Nuestro compromiso político de apoyo a su lucha debe ser diario, no solo en forma de declaraciones sino comprometiendo recursos humanos, técnicos y económicos para la puesta en marcha de las acciones acordados con los y las representantes sociales, siempre desde un punto de vista feminista y transformador.

Estamos hablando de derechos humanos fundamentales, del derecho a definir la propia identidad y a vivirla en libertad.

Es por ello que este Ayuntamiento se compromete a incluir en sus políticas una perspectiva de diversidad sexual e identidad de género, en concreto:

- Fomentar la puesta en marcha de programas de coeducación feminista que incluyan acciones para la prevención de la discriminación y para el desarrollo de una identidad y práctica sexo-afectivas no heteronormativas, diversas y desarrolladas en libertad.

- Facilitar todos los recursos necesarios para apoyar social, psicológica, jurídica y económicamente a todas las personas LGTBI+ que sufren discriminación, en particular a aquellas que se encuentran en una situación de mayor vulnerabilidad por su edad, raza, origen, situación administrativa, etc.

- Interpelar para la puesta en marcha una normativa específica en la CAV que garantice la defensa integral de los derechos de las personas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

espezifiko bat martxan jartzeko eskaera egitea.

- LGTBI+ adineko pertsonen arreta egokirako zerbitzuak sustatzea.

- Gure eskumenen esparruan, beste leku batzuetatik iristen diren eta beren sexu-orientazioaren eta/edo genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa eskaintzea.

- Mugimendu LGTBI+ eta feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetza-kanalak mantentzea, eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztea. Adibidez, LGTBI+ komunitatearen errealitatea ezagutzeko diagnostikoak sustatzea. Era berean, aurreko ekintza horiek guztiak mugimendu horiekin kontrastatu beharko dira.

Honekin batera gure herrian LGTBI+ pertsonek jasaten dituzten erasoak, edozein eratakoak direla ere, arbuiatzen ditugu. Eta honi aurre egiteko Errenteriako herritar nahiz udal langileak informatzen eta sensibilizatzen jardungo du Udalak.

Bukatzeko herritarrei dei egiten diegu, mugimendu LGTBI+ eta feministek gure herrian deitzen dituzten ekintzetan parte har dezaten."

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV), hau

LGTBI+ así como todos los recursos necesarios para su correcto desarrollo.

- Impulsar servicios para la correcta atención de las personas mayores LGTBI+.

- Facilitar, en el marco de nuestras competencias, una atención integral a todas las personas que llegando de otros lugares argumenten ser perseguidas con motivo de su orientación sexual y/o identidad de género.

- Mantener canales de comunicación y colaboración continuos con los movimientos LGTBI+ y feminista, y facilitar recursos para la puesta en marcha de iniciativas conjuntas. Por ejemplo, la puesta en marcha de diagnósticos que nos permitan conocer la realidad del colectivo LGTBI+ de nuestro municipio. Asimismo, todas las acciones anteriores deberán ser contrastadas con estos movimientos.

Asmimismo condenamos cualqier tipo de agresión, incluyenco tanto la violencia física como la verbal, la humillación y el menosprecio hacia las personas LGTBI+ en nuestro municipio, y nos comprometemos a continuar con el impulso de la información y sensibilizacion del personal municipal y de la ciudadanía de Errenteria.

Para terminar hacemos un llamamiento a la población para participar en las acciones que sean convocadas por los movimientos LGTBI+ y feminista en nuestro municipio."

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**E R A B A K I   D U**

Onartzea “LGTBI+ pertsonen sexu-askapenerako nazioarteko egunari” buruzko mozioa, Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ eta EAJ/PNV taldeek aurkeztua, (erabakiaren azalpen-zatian jasota dago).

**A C U E R D A**

Aprobar la moción relativa a “Día internacional por la liberación sexual de las personas LGTBI+” suscrita por los Grupos Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

Jarraian,

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du UAOren 49 eta 64. artikuluetan xedatutakoaren arabera, proposatzen duela gai-zerrendatik kanpo puntu bat sartzea mozio urgente gisa. Urgentzia egiaztatzeko argudio hauek eman ditu: Negoziazio Mahai Orokorrak 2018ko ekainaren 25ean egindako bileraren aktan jasota dago erakundearen ordezkaritzak nahiz ordezkaritza sindikalak elkarrekin adostuta adierazten dutela 2016ko apirilaren 19an itundu zituztela Errenteriako Udal Langileen Lan-baldintzen hobekuntza batzuk. Horrekin batera, Ituna izenpetu eta erabaki zuten hobekuntza horiek ahalik eta lasterren txertatzea “Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa” izenekoan, horren barne jasota geratzeko xedez. Aktan jasotakoa betetze aldera, beharrezkotzat jo da hobekuntza horiek premiaz onestea, izaera arau-emailea izan dezaten (bi aldek duten derrigortasunaz gain), lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren gainerakoa bezala. Hori guztia, kontuan hartuta itundutako hobekuntza batzuk zuzenean aplikatu ohi direla, Alkatearen edo Udalbatzaren eskumenak baliatuta, kasuan kasu, itunduak izan ziren unetik aurrera; horrela, proposamen horren bitartez atzeraeraginezko

Seguidamente.

* Interviene el Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 49 y 64 del ROM propone incluir un punto fuera del Orden del Día como moción urgente previa acreditación de su urgencia en base a la siguiente argumentación: En cumplimiento de lo dispuesto en el Acta de la Mesa de Negociación de fecha 25 de junio de 2018, donde tanto la representación institucional como la representación sindical de común acuerdo manifiestan que con fecha 19 de abril de 2016 pactaron algunas Mejoras laborales de las Condiciones de Trabajo del Personal del Ayuntamiento de Errenteria, proceden a firmar el citado Pacto y acuerdan se proceda a la mayor brevedad posible a incorporar dichas mejoras al “Acuerdo regulador de las condiciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria”, a fin de que se incluyan dentro del mismo, se considera necesario proceder a aprobar con carácter urgente dichas mejoras para dotarlas de carácter normativo (más allá del carácter obligacional entre ambas partes) al igual que el resto del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo. Todo ello también habida cuenta de que alguna de las mejoras pactadas se han venido aplicando directamente, a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eraginkortasuna emango litzaieke eta Akordio arautzaile horretan barneratuko lirateke, itundu ziren unetik aurrerako ondoriokin. Era berean, udalbatzak akordioa formalki onartzen eta berresten ez duen bitartean, ezin izango da argitaratu eta, horrenbestez, ez da eraginkorra izango hirugarrenen aurrean.

razón de su competencia, por el Alcalde o el Pleno, según los casos desde el momento en que fueron pactadas, procediéndose también con esta propuesta a otorgar eficacia retroactiva e incluir las mejoras en el citado Acuerdo regulador con efecto desde el momento en que fueron pactadas. A su vez en tanto en cuanto no sea formalmente adoptado y ratificado el acuerdo por el pleno tampoco podrá procederse a su publicación por lo que tampoco podrá tener eficacia frente a terceros.

Izan ere, Negoziazio Mahaia berriro bildu da Antolaketa batzordearen ohiko bilera egin ondoren, baita Udalbatzar honetarako deialdia egin ondoren ere. Hori dela eta ezin izan da irizpenik eman puntu honen inguruan, ezta udalbatzaren gai-zerrendan sartu ere. Nolanahi ere, eta adierazitako arrazoiengatik, premiazkoa da gai hori hil honetako ohiko udalbatzarrean aztertzea, onespena ematea gehiago atzeratu gabe.

Teniendo en cuenta que la Mesa de Negociación se ha reunido con posterioridad a la celebración de la comisión ordinaria de Organización e incluso con posterioridad a la convocatoria del presente Pleno, no ha podido dictaminarse el presente punto ni incluirse en el orden del día plenario. No obstante en atención a las razones indicadas urge tratar este tema en el pleno ordinario del presente mes sin dilatar mas su aprobación.

Amaitu da mintzaldia.

Finalizada la intervención.

Urgentzia bozkatu da, gaia ez duelako dagokion batzordeak diktaminatu.

Sometida su urgencia a votación, al no haber sido dictaminado en la Comisión Correspondiente.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (O/E EHBILDU, Errenteria IrabaziZ, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ/PNV), **erabaki du berrestea hurrengo puntuaren urgentzia:**.

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (O/E EHBILDU, Errenteria IrabaziZ, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV) **acuerda ratificar la urgencia del siguiente punto:**

**7. Udal langileen lan-baldintzak hobetzea onartzeko proposamena**

**7. Propuesta de aprobación de mejoras de las condiciones de trabajo del personal del ayuntamiento**

UDALHITZ 2008-2010 hitzarmenak arautzen ditu udal langileen lan-baldintzak. Udalbatzak 2008ko azaroaren 28an egindako bilkuran erabaki zuen hitzarmen horri atxikitzea eta, halaber, erabaki zuen

Las condiciones de trabajo del personal de municipal se encuentran reguladas en el Acuerdo UDALHITZ 2008-2010, al que este Ayuntamiento acordó adherirse en el pleno de 28 de noviembre de 2008,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

mantentzea 2006ko irailaren 29an eta azaroaren 24an onartutako baldintza onuragarrienak.

acordando también mantener las condiciones más beneficiosas aprobadas en fechas 29 de septiembre y 24 de noviembre de 2006.

Udal langileen lan-baldintzen negoziazio kolektiboa aitortua dago Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 31. artikuluan.

La negociación colectiva de condiciones de trabajo de los empleados públicos queda reconocida en el artículo 31 del RDL 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

UDALHITZ 2008-2010 hitzarmenean jasotako lan-baldintzen gainean hobekuntza batzuk Udal honetan proposatzeko xedez, hainbat negoziazio burutu dira 2014ko azaroaren 24an eratu eta 2015eko abenduaren 18ko Dekretuaren bitartez korporazioa berrira egokitu zen Negoziazio Mahai Orokorraren baitan. Horien ondorioz, Errenteriako Udal Langileen Lan-baldintzak Hobetzeko ituna lortu zen 2016ko apirilaren 19an.

Con el objeto de plantear en este Ayuntamiento una serie de mejoras a las condiciones laborales contenidas en el Acuerdo UDALHITZ 2008-2010, se llevaron a cabo negociaciones en la Mesa General de Negociación que se constituyó el 24 de noviembre de 2014 y se adecuó a la nueva corporación por Decreto de 18 de diciembre de 2015, alcanzando un pacto el día 19 de abril de 2016 sobre Mejoras de las Condiciones de Trabajo del Personal del Ayuntamiento de Errenteria.

Izan ere, itundutako hobekuntza horietako batzuk zuzenean aplikatu ohi dira, Alkatearen edo Udalbatzaren eskumenak baliatuta.

Atendiendo a que alguna de las mejoras pactadas se han venido aplicando directamente, a razón de su competencia, por el Alcalde o el Pleno.

Negoziazio Mahai Orokorrak ekainaren 25ean egindako bileran ituna sinatu dute aldeek eta, era berean, erabaki dute hobekuntza horiek ahalik eta lasterren txertatzea “Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa” delakoan.

Vista la reunión mantenida por la Mesa General de Negociación en el día 25 de los corrientes, en la que ha quedado firmado por las partes el mencionado pacto y se ha acordado proceder a la mayor brevedad posible, a incorporar las mejoras al "Acuerdo regulador de las condiciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria".

Kontuan hartu da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren III Tituluko IV Kapituluan eta Sindikatu-askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Legean jasotako araudi aplikagarria.

Considerando la normativa aplicable contenida en el Capítulo IV del Título III del Texto Refundido de la Ley del Estatuto del Empleado Público y en la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto de Libertad Sindical.

Giza Baliabideetako Teknikariak txostena eman du 2018ko ekainaren 25ean, Idazkariaren eta Kontu-hartzailearen adostasuna jasotzen duena.

Visto el informe de la Técnico de Recursos Humanos de fecha 25 de junio de 2018 y la nota de conformidad de la Secretaria y del Interventor.

Mozioaren presazko izaera egiaztatuta.

Acreditada la urgencia de la moción.

UAOren 49. eta 64. artikuluek ematen dioten eskumenak baliatuta, Alkateak proposatuta.

A propuesta del Alcalde, en uso de las facultades que le otorgan los artículos 49 y 64 del ROM.

Udalbatzak, aldeko 14 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV) eta 7 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), hau

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV) y 7 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos),

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

LEHENA.- Onespena ematea Errenteriako langileen lan-baldintzak hobetzeari, erantsitako dokumentuan eta gehigarrietan jasotako edukiaren arabera.

PRIMERO.- Aprobar las mejoras de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Errenteria, de conformidad con el contenido que figura en el documento adjunto y sus anexos.

BIGARRENA.- Txertatzea Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan onartutako hobekuntzak.

SEGUNDO.- Incorporar las mejoras aprobadas al Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria.

HIRUGARRENA.- Atzeraeginezko eraginkortasuna ematea hobekuntzei, eta Errenteriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan txertatzea hobekuntza horiek, itunduak izan ziren unetik aurrerako ondoreekin.

TERCERO.- Otorgar eficacia retroactiva e incluir las mejoras en en el Acuerdo regulador de las condiciones del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Errenteria, con efecto desde el momento en que fueron pactadas.

LAUGARRENA.- Argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean onartutako hobekuntzak, zabalkunde osoa izan dezaten.

CUARTO.- Publicar las mejoras aprobadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para su general conocimiento.

BOSGARRENA.- Udalaren erakunde autonomoek dagozkien erabakiak hartu beharko dituzte zentzu berean."

QUINTO.- Los Organismos Autónomos Municipales deberán adoptar el acuerdo correspondiente en los mismos términos.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**9. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

**9. Ruegos y Preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.

NAGORE SARASOLA OTERMIN

Firmado digitalmente por NAGORE SARASOLA OTERMIN
Fecha: 2019.04.03 13:59:05 +02'00'



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net